

**Anuntxi Aranaren mintzaldian egin azalpenetaz ezadostasun
eta galde-erantzun zenbait**

Euskal mitologiaren, Uztaritzeko Lapurdi salan, 2018ko ekainaren 13an

Galdera. *Ipuinak/lelendak/mitoak nola bereiz?*

Erantzuna. Ipuinak ez dira sinetsiak – haurrek beharbada bai, helduek ez. Mitoak bai. Legendak, gehienetan ez dira sinesten; baina, mitoen antzera, leku zehatz bati lotuak izan ohi dira. Beti ere, mitoek, legendek, ipuinek badute elkarren zerikusia eta ez da beti erraza haien arteko muga ezartzea.

G. *Mitoen ezaugarria baldin bada sinetsiak izatea, orain ere mitoak al dira, sinetsiak ez direnean?*

E. Orain ez dira gehiago sinetsiak, baina sinesten zituztenek erraten zituzten bezala bilduak dira, batzuetan sinestunek berek kontatuak; bestela, sinestunei oso hurbil ziren ahaide, auzo edo adiskideek kontatuak; eta hauek, eszeptikoak direnean ere, beren xaharrei entzun bezala erraten dituzte komunzki.

G. (Xan Errotabehere kontalariak) *Basajaunak, artzain bat libre joaten uzteko, hiru egia galdetzen dizkio. Enigmak direla eta, Esfingeak ezartzen eta Edipok zuzen erantzun zuena aipatu zen, ohartaraziz bi kasuetan bizia jokatzeko zutela erantzun emaileek.*

Xan Errotabeherek oharrarazi zuen istorio hori kontatzen zutenean, haientzat funtzio garrantzitsuena beheretarren eta bortuko artzainen eremua bereiztea zela. Eta horren kari aipatu du nola gauza bera hautematen den Mendibeko bortuan den Salbatoreko elizaren inguruan kokatuak diren beste kondairetan: Basajaunari hartutako ganderailua, orian Salbatoren dagoena, ezin zela Harizkurutxetako lepotik behera mogitu (eta berdin Salbatoreko Saindiaren irudia, ezin zutela Mendibeko elizara eraman).

E. Bi esnahiak ez dira elkar-ezinak, mitoen funtzioak anitzak izaten direlakoan; ikuspide desberdinetatik begiratzen ahal zaie eta kontalari bakoitzak interesatzen zaion alderdia azpimarra dezake.

G. *Mitologia gainezko mitologia, Ataunen berriki ibilia den irakasle gaztearen galde/oharretarik (Ataungo Barandiaran Museoko bisita gidatuan, Euskal mitologian emazteek duten munta eta irudi ona azaltzen dute).*

E. Bai, izaki feminino asko bada Euskal mitologian. Laminak denetan azaltzen dira eta Anbotoko (edo Murumendiko edo Txindokiko...) Andereak leku handia du: eguraldiarekin lotua izanik, uza baldintzatzen du (joritasuna edo gosea). Baina nire ustez, oraingo interpretazioetan hanpatuak dira haren irudia eta erran-nahia. Xahoren hitzak egiazkoak badira, XIX. Mendean ekialdeko mendiuneetan

Basajauna zen “popularrena”. Eta beste izaki maskulino garrantzitsuak ere badira: ekialdeko lamina zubiegileak (*Gillen* deitzen direnak), jentilak, mairuak... Galtzagorriak (familiariak) ere, deabruak diren ber, genero maskulinoari hurbilago direla pentsa daiteke.

Azken hamarkada hauetan aldarrikatu den euskal mitologiako “matriarkalismoa” (edo lehendabizi “matriarkatua”) erakusteko balio izan dute mitologiako emazteek. Interpretazio hori ez dela kondairetan justifikatua uste dut (hots mitologiaren mitologia egin dela). Kondairetan azaltzen diren emazte gehienak ondoan dituzten gizonak baino gutiago izaten dira, bai jakintzaz eta bai agintez.

Horrekin bat, erraten da dibinitate femininoen nagusigoa (laminak, Anbotoko Anderea...) konkomitantea dela jendartean emazteek duten (edo behiala izan zuten) egoera onarekin.

G. Zergatik ez mitologiako istorioak alda, berridatz edo nahi den bezala interpreta? Antzina aldatuak izan dira nonbait, haietan elementu kristauak ere baitira.

E. Ez da berdin mitoak sinesten eta bizitzen zituztenek aldatzea eta orain sinesten ez dugunek aldatzea. Sinestea zutenek mitoak transmititu eta, aldi berean, egin egiten zituzten... Orain kondairak bilduak eta idatziak dira, finkoak, eta diren bezala onartzekoak eta errespetatzekoak dira. Gure asmaketak eta berritasunak eratxikitzen dizkiegunean, zergatik ez erakuts eta aitortu? Horren orde, askotan, “gure arbasoek hala pentsatzen eta eaten zuten” aldarrikatzen da. Ausartuko al ginateke greziar mitologia horrela tratatzera eta aldatzera?